

DONOSTIAKO 45 URTETIK GORAKO LANGABEENTZAT ENPLEGUA SORTZEA SUSTATZEKO, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA SEKTOREETAN KONTRATATZEKO LAGUNTZA PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK. DONOSTIAKO EKONOMIA BULTZATZEKO DONOSTIA UP! 2018 PLANA

ATARIKOA

Donostiako Sustapena SA Donostiako Udaleko udal-sozietatea da, hiriko garapen ekonomikoaz arduratzen dena, eta sozietatearen helburua da, iraunkortasun eta berrikuntza irizpideak kontuan hartuta, politikak eta jarduerak sustatzea, tokiko ehun ekonomikoari laguntze aldera lehiakortasunari eusten eta hobetzen, gero eta polarizatuagoa eta globalagoa den merkatuaren aurrean. Era horretan, enpresa-egitura lehiakorra eta iraunkorra bultzatzen da.

Enplegua sortzea ardatz estrategikoa da hiriaren eta ingurunearen garapen ekonomikorako. Testuinguru horretan, Donostia UP! 2018 Plan berria sortu da, eta horren jatorriak eta aurrekariak Ekonomia Sustatzeko aurreko Planetatik datoz; modu horretan, enpresen, pertsonen eta erakundeen zerbitzura dauden baliabideak eta ekintzak partekatzen dituzte, lankidetzara publiko-pribatuaren bitartez, enplegua bultzatzeko dinamika eta enplegua sortzeko eta enpresa-garapenerako ekimenak sortuz.

Denboran zehar, Donostiako lan-merkatuaren adierazleek erakusten dute hirian merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituen taldea 45 urtetik gorako pertsonak osatzen dutela, eta bereziki emakumeak. 2018ko martxoko langabezia-tasaren arabera (Lanbideren datuak), langabeziaren %54,3a 45 urtetik gorako pertsonak osatzen dute, eta gehienak emakumeak dira (%56,3). Talde horretan, gainera, iraupen luzeko langabezia oso altua da, %62koa (%56 gizonak eta %66 emakumeak), beste adin-taldeetako iraupen luzeko langabeziarekin alderatuta (%21 30 urtetik beherako gazteak eta %37 30 eta 44 urte arteko pertsonak).

Joera hori egiturazkoa eta etengabea da denboran; beraz, Donostiako Sustapenarentzat beharrezkoa da, hiriaren egungo langabeziaren testuinguruan, enplegua lortzeko ahultasun eta desabantaila gehieneko pertsonak (hala nola, 45 urtetik gorakoak eta, bereziki, emakumeak) kontratatzea bultzatzeko behar diren estrategia guztiak indartzea.

Era horretan, deialdi hau abian jarri du enplegua sortzen duten sektoreetan horiek kontratatzea sustatzearen; hots, Ostalaritza eta Merkataritza sektoreetan, hirian kontratazio altuko sektoreak izateagatik, %20 eta %9, hurrenez hurren, guztira egindako kontratazioen gainean; hortaz, laguntza hauek eremu horietan jarduera ekonomikoa garatzen duten enpresentzat dira.

Aurreko laguntzen deialdian, 45 urtetik gorako pertsonen enpleguaren hobekuntzan emaitza onak lortu ziren, eta horrek 2018. denboraldirako deialdi berria egitera eraman gaitu, funts ekonomikoen zuzkidura handiagoarekin, hirian enplegu egonkorra eta kalitatezkoa bermatzen modu eraginkorrean lagun dezan, 45 urtetik gorako pertsonekin kontratu mugagabeak finkatzeko edo bihurtzeko neurriak bultzatuaz. Hori dela-eta, enpleguaren kalitatea bermatzeko, enpleguaren egonkortasuna eta lanpostuen ongizatea bezalako irizpideak funtsezko helburuak izango dira.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Laguntza hauen helburua da hiriko 45 urtetik gorako langabeak laneratzea bultzatzea Donostiako hirian jarduera-zentroa duten enpresetan; jarduera hori Ostalaritza eta Merkataritza sektoreetakoak izango da.

Modu horretan, 45 urtetik gorako langabeak kontratatzea bultzatzera zuzendutako laguntza-modalitate hauek abian jarriko dira.

A MODALITATEA: 45 urtetik gorako pertsonak lan-merkatuan sartzea.

B MODALITATEA: 45 urtetik gorako pertsonak lan-merkatuan finkatzea, kontratu mugagabeen bitartez.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostiako Sustapenak Oinarri hauetan araututako laguntzetarako ondoren adierazitako zenbatekoa jarriko du: 250.000€.

A. 45 urtetik gorako pertsonak lan-merkatuan sartzea: 225.000 €

B. 45 urtetik gorako pertsonak lan-merkatuan finkatzea, kontratu mugagabeen bitartez.

Sektore horietan enpleguaren kalitatea bultzatzeko helburua betetze aldera, kontratazioak lehenetsiko dira; hau da, diruz lagundutako kontratazio guztietatik, gutxienez aurrekontuaren %10a gordeko da 45 urtetik gorako pertsonak, lan-kontratu finkoen bitartez, lan-merkatuan finkatzeko kontratazioak bultzatzeko.

Modu berean, Donostiako Sustapenak, aurrekonturik ez iristeagatik diru-laguntzarik gabe geratutako eskaeren zerrenda egin ahal izango du. Horrela, funtsen hornidura gertatuz gero, diruz lagundu ahal izango ditu, deialdi honetako diru-laguntzen kopuru handiena betetzearren.

Kopuru hori aldatu ahal izango da Donostiako Sustapenak horrela erabakiz gero.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Laguntzaren pertsona onuraduna izango da laguntza emateko oinarri izan duen jarduera egingo duen pertsona edota laguntza ematea legezkotzeko egoeran aurkitzen dena, betiere Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzen pertsona onuradunak izateko aukera izango dute pertsona fisikoek edo juridikoek, publikoek edo pribatuek, estatukoek edo atzerrikoek nahiz aurrekoen pertsonalitate gabeko elkarteek, ordenamendu juridikoaren arabera behar bezala eraturakoak, Oinarri hauetan ezarritako baldintzak agertzen badira. Laguntza hauek ezingo dituzte eskuratu ondare-sozietateek, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 14. artikuluan definitutakoak.

Oinarri hauetan zehaztuko dira dagozkien laguntzak eskatzeko beharrezko baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua; edonola ere, Diru-laguntzen Lege Orokorreko (aurrerantzean DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da, ondorio hauetarako aplikagarritzat aitortzeagatik.

Ezingo zaie laguntza eman zerga eta/edo Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak, indarrean diren xedapenek ezarritakoak, egunean ez dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei.

Laguntza ezingo zaie eman ebazpen irmo baten bidez zehatuak izan diren pertsona fisiko edo juridikoei, hau da, diru-laguntzak edo laguntzak lortzeko aukera kendu zaienei, edo horretarako gaikuntza ematen ez zaien lege-debekuren batean daudenei, sexu-diskriminazioari lotutakoak barne, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzkoaren, seigarren xedapenean agindutakoaren arabera.

Laguntza ezingo zaie eman Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

Laguntza ezingo zaie eman aurrez emandako laguntzak itzultzeke (guztiz edo zati batean) dituzten pertsona onuradunei, itzultzeke dagoen diru-kopurua bueltatu dela egiaztatzen ez den bitartean.

4. ARTIKULUA. DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ONURADUNEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Pertsona onuradunek deialdian parte hartzeko honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Onuraduna Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egongo da honako jarduera-sektore hauetako batzuetan:
 - Ostalaritza eta, zehazki, 67 eta 68 epigrafeetako jarduerak.
 - Merkataritza, eta, zehazki, 64 eta 65 epigrafeetako jarduerak; baita, 971, 972, 973, 975 epigrafeetakoak ere.
- b) Laguntzaren xedeko kontratazioaren pertsonaren lantokia Donostian izatea.
- c) Pertsona juridikoen kasuan, jarraian aipatzen diren baldintza guztiak bete behar dituzte:
 - 1) Aktiboa 10 milioi eurotik beherakoa izatea edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegorako Kontzertu Ekonomikoan definitutako moduan, 10 milioi euro baino gehiagokoa ez izatea.
 - 2) Plantilaren batez besteko kopurua 50 langilera ez iristea. Plantilaren batez besteko kalkulua egiteko, lanaldi osoko urteko langileak hartuko dira kontuan. Lanaldi partzialeko langileei erreparatuz, zenbaketa lan egindako orduen proportzionala izango da.
 - 3) Aurreko 1 eta 2 zenbakietan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek ez izatea zuzenean edo zeharka ehuneko 25eko edo gehiagoko partaidetzarik.

Erakundea sozietate-talde bateko kide bada Merkataritza Kodeko 42. artikulua araberak, aurreko 1 eta 2 zenbakietan adierazitako kopuruetan talde horretako erakunde guztienak sartuko dira.

Aktibo osoa eta eragiketa-kopurua zenbatzeko, kontuan izango dira egindako ezabapenak, Merkataritza Kodeko 46. artikulua eta horren garapen-arauen aurreikusitakoari jarraiki.

Adierazitakoa alde batera utzi gabe, pertsona onuraduna izateko aukerarik ez dute izango:

- Irabazi-asmorik gabeko Elkarateak.
- Honako hauekiko lotura edo %25etik gorako partaidetza duten erakundeak: Sektore publikoaren barneko erakundeak (Sektore Publikoko Kontratuaren inguruko azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 3. artikulua barneko erakundeak; horren bitartez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), irabazi asmorik gabeko Fundazioak eta Elkarateak, ondare-elkarateak eta/edo Elkargo Profesionalek.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru-laguntzaren helburu izango dira hiriko 45 urtetik gorako langabeei egindako kontratazioak, horiek laneratzea bultzatzeko, Donostian jarduera-zentroa duten enpresetan.

Laguntza-modalitate bakoitzean ondorengo zenbatekoak emango dira:

A MODALITATEA: 45 urtetik gorako pertsonak lan merkatuan sartzea

1) 3 hilabeteko eta %100eko lanaldiko kontratazioetarako laguntzak. Laguntza-modalitate horretarako zenbatekoa gehienez **3.000 €-koa** izango da. Modalitate horretarako ez dira onartuko %100etik beherako lanaldia duten kontratuak

2) 3 hilabetetik gorako eta gutxienez %50eko lanaldiko kontratazioetarako laguntzak. Laguntza horretarako zenbatekoa gehienez **6.000 €-koa** izango da 6 hilabeteko edo gehiagoko eta %100eko lanaldiko kontratuarentzat.

Laguntza proportzionalki murriztuko da kontratuaren iraupena 6 hilabete baino gutxiagokoa bada (betiere 3 hilabetekoa edo gehiagokoa izanda) eta/edo lanaldi partzialekoa bada (betiere %50ekoa edo gehiagokoa izanda).

B MODALITATEA: 45 urtetik gorako pertsonak lan-merkatuan finkatzea, kontratu mugagabeen bitartez

A Modalitatean diruz lagundutako eta behar bezala justifikatutako kontratazioen kasuan, gutxienez %75eko lanaldia eta gutxienez 13 hilabetekoa den kontratu mugagabearen baldintzak betetzen badituzte, A Modalitateko laguntzen beste laguntza osagarri bat izango dute:

- 1) **1.000 €** 45 urtetik gorako gizonen kontratazio mugagabeen.
- 2) **1.500 €** 45 urtetik gorako emakumeen kontratazio mugagabeen.

Aurrean adierazitako diru-laguntzaren modalitate ezberdin bakoitzerako, %10a gehituko da dagokion zenbatekoaren gainean, kontratuak ondorengo taldeetakoren batekoak diren pertsonen egiten bazaizkie:

- 55 urtetik gorako gizonak.
- 45 urtetik gorako gizonak, iraupen luzeko langabeak.

Eta beste **%15** gehituko zaizkie kontratuak ondorengo taldeetakoren batekoak diren pertsonen egiten bazaizkie:

- 55 urtetik gorako emakumeak.
- 45 urtetik gorako emakumeak, iraupen luzeko langabeak.
- Guraso bakarreko emakumeak, adin txikiko seme-alabak haien kargu dituztenak.
- Desgaitasuna duten emakumeak.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.

Edonola ere, laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du izan kontratatutako pertsonen soldata eta gizarte-segurantzako kostuen %100 baino handiagoa, kalte-ordainak barne.

Donostiako Sustapenak erreserban dauden eskaeren zerrenda egin ahal izango du; hau da, aurrekonturik ez izateagatik diru-laguntzarik gabe geratu direnena, beranduago aurrekontua izanez gero onartze aldera, jadanik emandako bestelako laguntzak gauzatzen edo justifikatzen ez badira.

Pertsona onuradun bakoitzeko **gehienez 2** laguntza eman ahal izango dira.

Lan-kontratazioek gutxienez honako **baldintza** hauek bete beharko dituzte:

A MODALITATEA: 45 URTETIK GORAKO PERTSONAK LAN-MERKATUAN SARTZEA

- Kontratatutako pertsonak langabezian egotea eta Lanbide-EEZn (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu-eskatzaille bezala izena emanda egotea.
- Inskripzio-eguna lan-harremana hasteko egunaren aurrekoa izango da. Langabeek ez dute egon behar langile bezala alta-egoeran Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean edota Langile Autonomoen Erregimen Berezian, gutxienez lan-harremana hasi aurreko egunetik.
- Iraupen luzeko langabeen kontratazioetan, Lanbide-EEZn izena emanda egon beharko dute kontratazio-egunaren aurreko azken 18 hilabeteetan gutxienez, betiere denboraldi horretan langabezia-egoeran egon badira gutxienez 12 hilabetez.
- Hiru hilabeteko lan-kontratuaren kasuan, lanaldiak %100ekoa izan beharko du.
- Hiru hilabetetik gorako kontratazioetarako, lanaldia %50ekoa edo gehiagokoa izango da.
- Kontratazioa diruz lagundutako denboraldi eta lanaldi horretan mantendu beharko da. Lan-harremana diru-laguntzaren xedeko denboraldia baino lehenago amaitzen bada, laguntza ukatuko da, lan-harremana hori arrazoi objektiboak edo langilearenak ez diren arrazoiak medio amaitutakoan izan ezik. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da lan-kontratuaren iraupenarekiko zati proportzionalan.
- Kontratazioarekin edo kontratazioekin kontratatuak sartu aurreko berehalako 3 hilabeteetan dagoen batez besteko plantillaren gainean enplegu garbia sortu beharko da.

Kalkulu hori egiteko, kontuan izango da diru-laguntza eskatutako kontratazioaren egunean alta emanda dagoen batez besteko plantilla handiagoa izatea kontratazio-egunaren aurreko hiru hilabeteetan alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantilla baino. Egoera hori egiaztatu ahal izateko, "Alta-egoerako langileen batez besteko plantillari buruzko bi txosten" entregatu beharko dira, Gizarte Segurantzak emandakoak: bata kontratu-egunaren aurreko berehalako hiru hilabetekoa izango da eta bestea diru-laguntzaren xedeko kontratazioaren egun berekoa.

Adibidea: 2018ko maiatzaren 15ean egindako kontratuaren bidez plantillaren igoera garbia gertatu dela egiaztatzeko, ondorengo txostenak eman beharko dira:

- 1) 2018ko otsailaren 15etik 2018ko maiatzaren 14ra alta-egoeran aurkitzen diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena.
 - 2) 2018ko maiatzaren 15etik 2018ko maiatzaren 15era alta-egoeran aurkitzen diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena.
- Lan-harremanaren hasiera-eguna Oinarri hauek GAO n argitaratutako egunaren ondoren izatea eta gehienez ere 2018/12/14 arte.
 - Kontratazioak 5. artikuluan deskribaturiko modalitatearen batean egitea, gutxieneko hilabete-kopurua eta lanaldiaren %a beteaz. Kontratazioa gutxienez mantendu beharko da diruz lagundutako denboraldian zehar eta lanaldi-modalitatean. Lan-harremana diru-laguntzaren xedeko denboraldia baino lehen amaitzen bada, laguntza ukatuko da, lan-harreman hori arrazoi objektiboak edo langilearenak ez diren arrazoiak medio amaitutakoan izan ezik. Kasu horretan, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da lan-kontratuaren iraupen eraginkorrekiko zati proportzionalean.
 - Kontratatu beharreko pertsonak Donostian erroldatuta izatea, kontratazioa hasi aurreko egunetan. Errolda lan-harremana hasi aurreko egunekoa izango da gutxienez, eta, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, erakunde kontratugilearekin (persona onuraduna) edo beste edozein erakunderekin artikuluko horretan ezarritakoaren arabera lotetsita aurkitzen den edozein pertsona fisikorena ez den helbide batean egongo da.
 - Taldeetakoak diren langabeei egindako kontratazioetan, kontratuaren hasiera-egunean ondorengo tipologiaren bat bete beharko da:
 - Iraupen luzeko langabeak (langabezian dauden pertsonak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan "enplegu-eskatzaile" bezala inskribatuta daudenak, kontratazioaren aurreko 18 hilabeteetan, betiere denboraldi horretan langabezia-egoeran egon badira gutxienez 12 hilabetez).
 - Kontratuaren hasiera-egunean 55 urtetik gorako pertsonak.

- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.
- Guraso bakarreko emakumeak, adin txikiko seme-alabak haien kargu dituztenak.
- Desgaitasuna duten emakumeak=>%33

Ez dira diruz laguntzekoak izango ondorengo kontratazioak:

- %50 baino gutxiagoko lanaldirako egindako kontratazioak, 3 hilabetetik gorako aldi baterako kontratuetan.
- Artikulu honetan deskribatutako bakarren bat baino denboraldi edo iraupen gutxiagorako egindako kontratazioak.
- Ez da diru-laguntzaren xede izango, Gipuzkoako Elkarteen Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzei jarraiki, onuradunarekin lotura duen edozein pertsona fisikoren kontratazioa.
- Horrez gain, ez da diru-laguntzaren xede izango ezkontidearen, izatezko bikotearen kontratazioa, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eratutako izatezko bikoteak, arbasoa, ondorengoa edo bigarren mailako zehar-ahaidea direnean, jatorria ahaidetasunean, odol-kidetasunean, ezkontza-ahaidetasunean, izatezko bikotea eratzetik sortutako harremanean edo onuradunaren adopzioan badu ere, ezta onuradun horrekin lotura duten pertsonatzat jotzen direnak ere, Gipuzkoako Elkarteen Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikulua 3. atalarekin bat eginez
- Kontratazio-egunaren aurreko 12 hilabetetan enpresa berean izaera mugagabearekin zerbitzuak emandako pertsonari egindako kontratazioak edo enpresa eskatzailearekin lotetsitako pertsona fisikoei edo erakundeei egindakoak, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera. Gainera, ez dute ondare-sozietateak izan behar.
- Ez da kontratuen batuketarik onartuko. Diru-laguntzaren xedeko laguntza bakoitzerako kontratu bakarra onartuko da.
- Ez dira onartuko laguntzaren eskaeraren ondoren egindako kontratu-luzapenak.
- Lanaldia aldatu duten kontratuak, hasieran kontratatutako lanaldia gehitzeko egindako aldaketak direnean izan ezik.
- Ez dira onartuko aldi baterako laneko enpresek egindako kontratuak.

B MODALITATEA: 45 URTETIK GORAKO PERTSONAK LAN-MERKATUAN FINKATZEA KONTRATU MUGAGABEEN BITARTEZ

- Lan-kontratu mugagabeak gutxienez %75eko lanaldiarekin egitea.

- Kontratua gutxienez 13 hilabetez mantentzea kontratuaren hasiera-egunetik zenbatzen hasita.
- A laguntza-modalitatearen onuraduna izatea eta hori behar bezala justifikatzea.
- Kontratazioa mugagabea izango da eta diruz lagundutako gutxieneko lanaldirako egin beharko da.
- Taldeetakoak diren langabeei egindako kontratazioetan, kontratuaren hasiera-egunean ondorengo tipologiaren bat bete beharko da:
 - Iraupen luzeko langabeak (langabezian dauden pertsonak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan "enplegu-eskatzaile" bezala inskribatuta daudenak, kontratazioaren aurreko 18 hilabetetan, betiere denboraldi horretan langabezia-egoeran egon badira gutxienez 12 hilabetez).
 - Kontratuaren hasiera-egunean 55 urtetik gorako pertsonak.
 - Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.
 - Guraso bakarreko emakumeak, adin txikiko seme-alabak haien kargu dituztenak.
 - Desgaitasuna duten emakumeak=>%33

Ez dira diruz laguntzekoak izango ondorengo kontratazioak:

- %75 baino gutxiagoko lanaldirako egindako kontratazioak.
- Lanaldia aldatu duten kontratuak, hasieran kontratatutako lanaldia gehitzeko egindako aldaketak direnean izan ezik.

6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZEKIN BATERA ARITZEA

Laguntza hauek ez dira bateragarriak izango helburu eta denboraldi bererako beste edozein Administrazio edo erakunde publikok edo pribatuk, estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioarteko erakundeetakoek, emandako beste edozein laguntzarekin. Edonola ere, bateragarriak izango lirarteke indarrean dagoen legediaren arabera Gizarte Segurantzako kuotetan egokitu daitezkeen hobariekin edo murrizketekin.

Oinarri hauetan ezarritako laguntzek 2013ko abenduaren 18ko Batzordearen 1407/2013 zenbakidun Araudian (EE) ezarritako "minimis" arauak errespetatuko dituzte, 2013ko abenduaren 24ko HAMABIAN argitaratuta, EE Funtzionamendu Itunaren 107 eta 108 artikulua Minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak aurkezteko epea Oinarri hauen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta laguntzetarako jarritako baliabide ekonomikoak agortu bitartekoa izango da, Oinarri hauetako 2. artikuluari jarraiki (baliabideak agortu izana Donostiako Sustapenaren web orrian argitaratuko da) edo, bestela, deialdia 2018ko abenduaren 14an itxi arte.

Eskaera-egunean, lan-kontratuak eginda egon beharko du; bestela, diru-laguntza ukatu ahal izango da.

Eskaerak telematikoki edo era presentzialean aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera aurkezteko epea gehienez hilabete natural batekoa izango da, kontratuaren hasiera-egunetik zenbatzen hasita.

Eskaera telematikoak Donostiako Sustapenaren web orriaren bidez egingo dira (www.fomentosansebastian.eus), bertan ezarritako eskakizunen arabera. Telefonoz artatzeko ordutegia Donostiako Sustapenaren web gunean adieraziko da.

Eskaera presentzialak Donostiako Sustapenaren Informaziorako Zerbitzu Zentraletan aurkeztuko dira; hau da, Erregina Erregentearen kalea 8, Victoria Eugenia Antzokia eraikina, 20.003 Donostia, Donostiako Sustapenaren web gunean herritarrak artatzeko jarritako ordutegian.

Edozein informazio nahi izanez gero edo kontsultaren bat egin nahi bada, bide hauek erabil daitezke: 943.482800 edo fomentoss@donostia.eus. Erreferentzia gisa, honako hau adierazi behar da: 45 URTETIK GORAKO PERTSONEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK.

Laguntza ekonomiko hauek eskatzeko interesa duten enpresek edo erakundeek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- a) Eskaera-orria ("Eskaera" Eranskina).
- b) Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen bankuko datuak, dagokion banku-erakundeak zigilatuta ("Banku datuak" Eranskina).
- c) Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANaren kopia.
- d) Pertsona juridikoa izanez gero, eskatzailearen IFKren kopia, eta, hala behar izanez gero, sinatzailearen NANA.
- e) Pertsona juridikoa bada, eskritura edo eraketa-agiriak, Estatutuak edo sorrera-akta; bertan, beren jarduera erregulatzeko araudiak jasoko dira, behar bezala inskribatuta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, zer-nolako pertsona juridikoa den

- kontuan hartuta. Berezko nortasun juridikorik gabeko Sozietate Zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigitaturiko kontratu pribatua sartuko da.
- f) Eskaera sinatzen duen pertsona ez badator bat eskrituran edo eraketa-agirietan inskribatutakoekin, ahalordetzearen eskritura publikoa ere aurkeztu beharko da, eskaera egiteko eskumena egiaztatzearen.
 - g) Jarduera ekonomikoen agiri eguneratua, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako historikoa.
 - h) Zerga-betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - i) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - j) Donostiako Udalaren ziurtagiria, laguntzaren eskatzaileak Udalarekin ez duela zorrik egiaztatzeko, edo, haren ordeztu, berariazko baimena ("Eskaera" eranskinean sartua) Donostiako Sustapenak informazio hori Udaletik zuzenean eskuratu ahal izateko.
 - k) Zuzenean edota zearka bada ere, %25ekoa edota gorako bestelako enpresen partaidetza duten pertsona juridikoen kasuan, "Parte hartzailearen aitortpen Arduraduna" Eranskina.
 - l) Kontratazioaren datuak ("Kontratazioaren datuak" eranskina).
 - m) Lan-kontratuaren kopia; bertan, iraupena, lanaldia eta lantokia agertuko dira. Mugagabe bihurtu diren aldi baterako kontratuen kasuan, aldaketa hori egiaztatzeko agiria ere gehitu beharko da.
 - n) Lan-kontratuaren komunikazioa, izandako okupazioekin.
 - o) Kontrataturiko pertsonaren NAN / AIZ kopia.
 - p) "Inskripzio-denboraldien txostena" agiria, Lanbidek emana kontratazioa hasi ondoren.
 - q) Langilearen lan-bizitza, Gizarte Segurantzak emana, kontratazioaren aurreko 12 hilabeteak jasotzen dituen eta diru-laguntza eskatutako kontratuaren hasiera ondorengo datarekin. Iraupen luzeko langabeen kasuan, langilearen lan-bizitzan kontratazioaren aurreko 18 hilabeteak jaso beharko dira.
 - r) Donostiako Udalak kontratatutako pertsonaren inguruan emandako errolda-ziurtagiria edo Donostiako Sustapenarentzako baimena ziurtagiri hori eskatzeko ("Kontratazioaren datuak" eranskina).
 - s) Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren gaineko txostena, Gizarte Segurantzak emana, kontratazio-egunaren aurreko hiru hilabetetako.
 - t) Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren gaineko txostena, Gizarte Segurantzak emana, kontratazio-eguneko.
 - u) Kontratazioa taldeko pertsonari egindakoan; hau da, iraupen luzeko langabeak, 55 urtetik gorakoak, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak, emakume guraso bakarrak, haien kargu adin txikiko seme-alabak dituztenak, eta desgaitasuna duten emakumeak =>%33. Egoera hori ziurtatzeko behar adinako dokumentua aurkeztu beharko da:
 - Iraupen luzeko langabeak: inskripzio-denboraldien eta lan-egoeraren gaineko txostena, kontratazio-egunean, azken 18 hilabetetako egoera jasotzen duena.
 - 55 urtetik gorako pertsonak: NANaren kopia.

- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak: Ministerio Fiskalaren txostena, eskatzailea genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima dela agertzen duten aztarnak izatea adierazten duena, babesteko agindua eman bitarte. 2. Kautelazko neurriak adosten dituen auto judiziala. 3. Biktima izaera egiaztatzen duen epai judiziala, babes aginduarekin edo agindurik gabe. 4. Penaleko Epaitegiek emandako babestutako biktimaren egiaztatutuna.
- Emakume guraso bakarrak, haien kargu seme-alabak dituztenak: Eskatzailearen erroldatze-egiaztapen eguneratua; bertan, etxean bizi diren pertsona guztien zerrenda, eskatzailea udalerrian erroldatutako eguna eta laguntzak eskuratzeko eskubidea ematen duten seme-alabak sartuta dauden familia-liburuaren kopia jasoko dira.
- Desgaitasuna duten emakumeak =>%33: dagokion desgaitasunaren ziurtagiria, eskumeneko erakunde publikoak emana.

Enpresa edo erakunde interesatuek, eskaera honen aurretik 2017ko edo 2018ko deialdiaren laguntza baterako Donostiako Sustapenaren aurrean aurkeztu badute atal honetan jasotzen den dokumentazio guztia edo zati bat, ez dute berriro dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango. Edonola ere, dokumentazioak indarrean egoten jarraitu beharko du eta datuak aldatzarik izan gabe mantenduko dira.

Hasieran eskatu ez den B MODALITATEKO laguntza berri bat eskatuz gero, Donostia Sustapenak dagoeneko emandako A MODALITATEKO laguntza baterako, eskabide-formularioan argi zehaztu beharko da zein espediente-zenbaki den, eta hurrengo dokumentazioa baino ez da entregatu beharko:

Dokumentazio administratiboa:

- a) Eskabide-orria ("Eskabidea" eranskina).
- b) Aldi baterako kontratu bat mugagabe bilakatzea egiaztatzen duen dokumentua, eta baita aipatutako kontratuaren jakinarazpena ere.
- c) Zerga-betebeharren betetzea egunean izatearen egiaztagiria.
- d) Gizarte Segurantzako betebeharren betetzea egunean izatearen egiaztagiria.
- e) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarduera ekonomiko-historikoen dokumentua.
- f) Donostiako Udaletxeko ziurtagiria, zeinaren bitartez laguntzaren eskatzaileak udaletxearekin inongo zorrik ez duela ziurtatuko den, edo, besterik ezean, berariazko baimena ("Eskabidea" eranskinean), Donostiako Sustapenak informazio hori zuzenean Donostiako Udaletxetik lor dezan.

Pertsona onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizuneko aitorten guztiak nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioa egiazkoak izatearen gaineko erantzukizuna.

8. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Eskaera erregistratzeko unean, eskaera-inprimakia gehitu beharko da Oinarri hauetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

Dokumentazio guztia berrikusi eta gero, eskaera guztiz bete gabe dagoela egiaztatzen bada, edo diruz laguntzeko jarduera bakoitzerako adierazitako dokumentazioa aurkezten ez bada, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio, hamar laneguneko epean, hutsegite hori konpontzeko edo nahitaezko dokumentuak gehitzeko. Horrela egiten ez badu, eskaera kanpoan utziko da, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horren ebazpena emango da.

Dokumentazioa telematikoki edo modu presentzian aurkeztu beharko da, eskaera egiteko erabilitako aurkezpen-bide bera erabilia. Helbide elektronikoz jasotako zuzenketak ez dira onartuko.

Laguntzak eman edo ukatu Donostiako Sustapenak emandako berariazko ebazpenaz egingo dira.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZAREN IZAPIDEA ETA EBAZPENEA

Eskaerak erregistro-ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, harik eta laguntzearako jarritako baliabide ekonomikoak agortu arte, Oinarri hauetako 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Eskatutako laguntza ebazteko epea bi hilabetekoa izango da eskaeraren erregistro-egunetik kontatzen hasita, epe horren barruan dokumentazio administratiboa zuzentzeko denboraldiak kontuan izan gabe. Laguntza ematearen ebazpena ezarritako epean ez emateak ez du esan nahi laguntza emango denik.

Eskaera ebazteko unean, eskaerarekin batera nahitaez aurkeztu beharreko dokumentazioa berrikusiko du Donostiako Sustapenak. Eskaerarekin batera aurkeztu den beste edozein dokumentazio, Oinarri hauetan ebazteko eskatu gabekoa, ez da berrikusi beharrik izango laguntza ebazteko.

Laguntzak eman edo ukatu Donostiako Sustapenak emandako berariazko ebazpenaz egingo dira.

Ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie, eta pertsona onuradunen zerrendak argitaratu egingo dira.

Deialdiaren inguruko jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira; hau da, eskaeran adierazitako helbide elektronikoen bitartez. Onuradunak aldatu ahal izango du Donostiako Sustapenarekin komunikatzeko bidea. Horretarako, idatzia aurkeztu behar du Donostiako Sustapenaren Informaziorako Zerbitzu Zentraletan; hots, Erregina Erregentearen kalea 8, Victoria Eugenia Antzokia eraikina, 20.003 Donostia. Beraz, deialdiari buruzko jakinarazpenak posta arruntaz jasotzea eskatu behar du. Halaber, jakinarazpenaren helbidea adierazi behar da, eskaeran adierazitako enpresaren helbide bera ez bada.

Emandako ebazpenarekin desadostasuna izanez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira gehienez ere hilabete bateko epean ebazpena emandako egunetik kontatzen hasita. Edonola ere, Donostiako Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

Modu berean, Donostiako Sustapenak erreserban dauden eskaeren zerrenda egin ahal izango du; hots, aurrekonturik ez izateagatik diru-laguntzarik gabe geratu direnena, diruz laguntzeko funtsen zuzkidura izanez gero, deialdi honetan ahalik eta diru-laguntza gehien emate aldera.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Diru-laguntza izan dezaketen gastu bezala onartuko dira oro har diruz lagundutako jardueraren izaerari ez bairik gabe erantzuten dioten eta Oinarri hauetan ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak.

Diru-laguntza izan dezaketen gastuei aplikatu ahal izango zaie, berariaz igorrita, DLOko 31. artikulua.

Laguntzak modu honetan ordainduko dira Laguntzaren Modalitate bakoitzean:

A MODALITATEA: 45 URTEK GORAKO PERTSONAK LAN-MERKATUAN SARTZEA

Kontratueterako ordainketa bakarria diruz lagundutako laguntza justifikatu ondoren egingo da.

Mota honetarako azken justifikazioa aurkezteko epea gehienez bi hilabete naturalekoa izango da, diru-laguntzaren xedeko denboraldia amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Onuradunak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- “Justifikazioa” Eranskina.
- Kontrataturiko pertsonaren lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua, laguntzaren denboraldian enpresan egongo dela erakusteko.

- Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiri eguneratua, betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua edo Donostiako Sustapenari informazio hori eskatzeko emandako berariazko baimena (“Justifikazioa” eranskinean sartua).
- Nominen eta gizarte-aseguruen kopia nahiz bi kontzeptuak indarrean den araudian aurreikusitako moduan ordaindu izana egiaztatzen duten dokumentuen kopia.

Dokumentazioa telematikoki edo modu presentzialean aurkeztu beharko da, eskaera egiteko erabilitako aurkezpen-bide bera erabilia. Helbide elektronikoz jasotako justifikazioak ez dira onartuko.

B MODALITATEA: 45 URTETIK GORAKO PERTSONAK LAN-MERKATUAN FINKATZEA KONTRATU MUGAGABEEN BITARTEZ

Kontratu mugagabeetarako ordainketa bakarra, enpresan 13 hilabetez egon dela justifikatu ondoren.

Mota honetarako azken justifikazioa aurkezteko epea gehienez bi hilabete naturalekoa izango da, kontratuaren hasiera-egunetik hasi eta hamahiru hilabete betetzen direnetik aurrera zenbatuta.

Onuradunak ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- “Justifikazioa” Eranskina.
- Kontraturiko pertsonaren lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua, kontratazio-hasieratik 13 hilabetez enpresan egongo dela erakusteko.
- Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emandako ziurtagiri eguneratua, betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- Donostiako Udalarekin zorrik ez duela egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua edo Donostiako Sustapenari informazio hori eskatzeko emandako berariazko baimena (“Justifikazioa” eranskinean sartua).
- Nominen eta gizarte-aseguruen kopia nahiz bi kontzeptuak indarrean den araudian aurreikusitako moduan ordaindu izana egiaztatzen duten dokumentuen kopia.

Dokumentazioa telematikoki edo modu presentzialean aurkeztu beharko da, eskaera egiteko erabilitako aurkezpen-bide bera erabilia. Helbide elektronikoz jasotako justifikazioak ez dira onartuko.

Laguntza-mota bakoitzerako justifikatzeko ezarritako epeak betetzen ez badira, dagokion laguntza ukatuzat emango da.

11. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza hauen pertsona onuradunek Diru-laguntzen Lege Orokorreko 14. artikuluan jasotako betebeharrak onartuko dituzte. Oro har, espezifikoki ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Ekarpena diruz lagundutako jardueretarako erabiltzea.
- b) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa ezarritako modu eta denboraren arabera aurkeztea.
- c) Jasotako laguntzak aplikatzea justifikatzen duten dokumentuak jasotzea, egiaztatze eta/edo ikuskatzeko jardueretarako, eta, edonola ere, aplikatzeko araudian ezarritako epearen barruan.
- d) Kontabilitate-liburuak behar bezala burutzea, hori nahitaezkoa denean.
- e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
- f) Donostiako Sustapenari jakinaraztea edozein egoeraren aldaketa subjektibo edota objektibo, laguntzak emateko kontuan hartua izan bada.
- g) Donostiako Sustapenak emandako laguntzen inguruan funtzioak betetzerakoan eskatutako informazio guztia ematea.
- h) Donostiako Sustapenari ematea helburu bererako jasotako beste diru-laguntzen, laguntzen, sarreraren edo bestelako baliabideen berri.
- i) Donostiako Sustapenarekin elkarlana egitea, hala behar izanez gero, finantza kontrolatzeko eta egiaztatze burutu ditzakeen jardueretan, eta eskatutako informazio eta dokumentazio guztia ematea.
- j) Laguntzaren barruko jardueretarako beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak edukitzea.
- k) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- l) Erakundearen hautapen-prozesuetan erabilitako dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan bermatzea hizkuntzaren erabilera ez sexistarik egitea, emakumeen diskriminazioko edozein irudi edo estereotipo sexistak saihestea eta berdintasun, presentzia orekatu, dibertsitate, erantzunkidetasun eta rol eta genero identitateen aniztasuneko balioak dituzten irudiak sustatzea.
- m) Komunikazio-euskarrietan (web, e-mailak, megafonia, e.a.), sustatzeko eta zabaltzeko materialen edizioan, antolatutako jardunaldietan eta ekitaldietan, e.a., EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzea bermatzea (euskarari lehentasuna ematea). Erakunde eskatzaileek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko nahiz zuzentzeko (hilabete batean gehienez

1.000 karaktereko itzulpenak, eta zuzenketen kasuan 9.000 karaktere), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.

12. ARTIKULUA. DIRUA ITZULTZEA

Onuradunak jasotako ekarpena itzuli beharko du, gehi diruaren legezko interesa — emandako zenbatekoak ordaintzen diren unetik aurrera—, honako edozein kasu hauetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharren ez betetze larria eta errepikatua.
- Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan ekarpena zertarako erabili den justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar adina ez justifikatzea.
- Onuradunaren jardueraren gainean egin litezkeen haren baieztapen eta ikuskapen jardunekiko erresistentzia, aitzakia edo aurkakotasuna, kontabilitateko betebeharrak, erregistrokoak eta dokumentuak gordetzekoak barne direla; horren ondorioz ezinezkoa denean egiaztatzea jasotako ekarpenaren erabilera, finantzatutako jardueren egiazkotasuna eta erregularizazioa, edota xede bererako diru-laguntzak, bestelako laguntzak, sarrerak edo baliabideak batera izatea, horiek edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik, estatukoetatik, Europar Batasunekoetatik nahiz nazioarteko erakundeetatik datozela ere.
- Jardueraren gehiegizko finantzazioa bada, gastatu gabeko edo gehiegi finantzaturiko kantidadean.

Ekarpena itzuli beharko da, Donostiako Sustapenak egiaztatuta eta onuradunari igorrita, jarraian deskribaturiko baldintzetan, Oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatzen bada.

Dirua itzuli beharko da laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean, Donostiako Sustapenak onuradunari artikulua honetan dirua itzultzeko aurreikusitako kausaren bat dagoela burofaxez bidaltzen dionetik zenbatzen hasita.

Itzultzeko aurrean aipatutako arrazoiren bat gertatuz gero, ordaintzeko legezkiokoen kopuruak kobratzeko eskubidea galduko du onuradunak.

13. ARTIKULUA. NORBERAREN DATUAK BABESTEA

Datu Pertsonalak Babestearen inguruko 15/1999 Lege Organikoaren (DPBLO) 5.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Oinarri hauetan araututako laguntzak eskatu dituztenei jakinarazten

zaie dagokion eskaeraren bidez nahiez, horiek behin emanda, izapidetzerakoan eta/edo kudeatzerakoan emandako datu pertsonalak DONOSTIAKO UDALAREN datu-fitxategi batean edo hainbatetan sartuko direla eta DONOSTIAKO SUSTAPENA SAK kudeatuko dituela, batetik, enplegua bilatzeko politika aktiboak kudeatzeko eta, bestetik, DONOSTIAKO SUSTAPENA SAREN zerbitzuen eta jardueren inguruko sustapen-informazioa bidaltzearen, eskatzaileak dagokion eskaeran horretarako baimena ematen badu.

Alderantzizkoa berariaz adierazitakoan salbu, eskatutako datuak beharrezkoak dira eskaerak bideratu ahal izateko. Datu pertsonalen titularraren ardura izango da emandako datuak egiazkoak eta zehatzak izatea.

Eskatzaileak hirugarrenen datuak ematen baditu, datu horiek emateko pertsona horien aurretiko baimena izan beharko du.

Halaber, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak utzi ahal izango zaizkiela enplegua eskaintzen duten erakundeei nahiz, beharrezkoa denean, estatuko eta/edo Europako erakundeei, laguntza horiek finantzatzen badituzte eta/edo DONOSTIAKO SUSTAPENA, SAREkin elkarlana egiten badute kudeaketa-lanetan.

Era berean, jakinarazten da eskatutako zerbitzuak eta laguntzak emanez gero, onuradunen identifikazio-datuak argitaratu ahal izango direla DONOSTIAKO SUSTAPENA, SAREN web orrialdean, laguntzaren zenbateko eta guzti, edota Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo dagokion egunkari ofizialean, hala behar izanez gero.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko edo datuen aurka jotzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte interesatuek haien datu pertsonalei dagokienean. Horretarako, idatzia zuzendu behar dute helbide honetara: DONOSTIAKO UDALEKO UdallInfo Zerbitzua, Ijentea kalea 1, 2003 Donostia. Nortasuna egiaztatzeko, NANaren kopia aurkeztu behar da.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

Interesatuek eskaera aurkezteak Oinarriak erabat onartzen dituztela esan nahi du.

Erantzukizunetik salbuestea

Pertsona onuraduna izango da laguntzaren barruko jarduera egin aurretik edo ondoren edota ondorioz gerta daitezkeen kalte pertsonalen eta/edo materialen erantzule bakarra; beraz, Donostiako Sustapenak ez du izango kontzeptu horien gaineko erantzukizun bakar bat ere.

16. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, DLOan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretu bidez onartutako Garapen Erregelamenduan jasotako arauak eraenduko dituzte, DLO horretan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatutako informazio-arlokoiei dagokienean soilik, hori guztia bigarren paragrafoko 3.2 artikuluari jarraiki (araua aplikatzea zehazten duena).

Aipatu DLO eta DLOE soilik aplikatuko dira Oinarri hauek legezko testu horietara berariaz igorritakoan.

Donostian, 2018ko ekainaren 27an

Ernesto Gasco

Donostiako Sustapena, SAko lehendakariordea